

Euskararen plangintza

Mahainguru hartan erantzun gabeko itaunak (VIII)

... Euskararen aldeko militantiak noski, bestelako militantiaren artean, garrantzi berezia eduki izan du Herri honetan; eta oraindik ere baduela esan daiteke. Agian beste batetarako mahainguru honetarako gai egokia izango dugu. Baina oraingoz utzi dezagun bere horretan. Eta goazen hurrengo itauna entzuterara. Gabon!

— Alde egin ote digu, bada, gure itaungileak? ...Gabon! Bai, orain bai...Egin ezazu zeure itauna, mesede! Gabon!

— Gabon! Begira, ni Euskal Herrian Euskaraz-ekoa naiz. Harrotu beharrik ez dut, baina lotsarik ere ez daukat aitortzeko, behin baino gehiagotan ibili izan nazela erdarazko errotuluak ezabatzeko; itxialdi bat ere egin nauze euskararen erabilera komunikabideetan lotsagarria delako. Euskal Teledista erabat euskalduna eskatzeko ere manifestaldi batetan baino gehiagotan parte hartu izan dut...

— Barkatu! Zure «hazañak» kontatzeko aukerarik beste nonbait edukiko duzu. Orain zure itaunaren zain gaude. Zein da zure itauna? Itauna, mesede!

— Itauna egiteko modu bat, aurretik protesta egitea da. Eta nik neure haserrea agertu nahi dut laburki. Begira: leku askotan eta zenbait lagun «ohoretu»-engandik entzun izan behar dugu EHEkook, erradikalak, buruberoak, eta nik ez dakit zer garelara. Guzti hori, hainbat euskaldun abertzale omen diren txepelkeria nabarmendu eta salatzeagatik, euskarari buruz. Nik neuk berriro errepikatu nahi dut nere salaketa...Eta hor do nere galdera: ez al zaizue iraingarria iruditzen, euskararentzat eta

euskaldunontzat iraingarria, aginte autonomikoak eta demokraziak etorri eta hainbeste urte gerora, % Sera ez iristea euskararen erabilera komunikabideetan, administrazio publikoan itzultzaile borondate onezko batzuren eskuetan uztea euskara, Jaurilaritzako kontseilarietatik bik edo hiruk bakarrik euskaraz jakitea, autobus publikoetan erdaraz egin beharra, etab, etab? Zeren zai egon behar dugu? Besterik ez!

Garratza da galdera, eta itaungilearen errespetuak eskatzen du hori leuntzen ez ibiltzea. Euskaldun asko dira gainera garratzasun eta larritasun berberarekin bizi dutenak euskararen aldeko borroka.


Baina galderagileak bere jokabide bat agertu du, galdera egin aurretik. Eta bere jokabide hori guk zurikatzea ala gaitzestea nahi du: postura hartzea geure aldetik.

Neure aldetik, eta hasteko zera esango nuke: nik neuk ere sarritan nabari izan dudala neure burua minduta eta irainduta «Ondasun foralaren» bulegotan kontu ematera joan eta euskaraz dakienik aurkitu ez dudanean edota Euskal Teledistan Jaurilaritzako sailbururen bati erdaraz mintzaten entzun diodanean. Era berean minduta eta laidoztaturik nabari izan dut neure burua, oraindik ere gure kamioetan erdaraz hutesz ikusi ditudanean horko iragarriak, edota honelako perlak ikusi ditudanean: «Bilbo arguzten zaitu» edo Oriu/Oriu, bata eta bestea; kaligrafia ezberdin hutesz idatzita ikusi ditudanean. Ordua dela pentsatu izan dut, seriotasun handixeagoa es-

katzeko. Horregatik zera esango nuke: egunero horrelakoekin eta okerragoekin hartzen ari diren erasoen kontra defentsazko eta erresistentziako ekintzak aurrera eramateko eskubidea dutela herriarrek. Zailtzarrik ez, erresistentzia horrek bere metodorik onenak bilatu behar ditueta.

Baina itaungilearen salaketaren eta itaun osoaren azpian euskarra normaltzeko eta berreskuratzeo jokabideren arteko «borroka» dagoela uste dut: poli-poli-iki biliar behela esaten dutenen eta neurri bizkorak eta orokorrak hartu behar direla esaten dutenen arteko. Eta borroka horretan honelako salaketak erabili ohi dira: txepelkeria, alde batetik; buruberoeria eta dogmakeria, bestetik. Eta beti egon ohi dira, zentzukoarena eta neurritsua-rena egin nahi dutenak.

Lau puntutan emango nuke neure eritzia: 1) Hasteko, euskarra euskaldun guztientzat eskaintza eta aukera aberasgarria, erakargarria eta interesgarria izatea lortu behar dugu: egunero bizitarako praktikoa eta erabilgarria izango den hizkuntza, alegia. 2) Euskarra ikasteko eta erabiltzeko erantzutasun eskaini behar zaizkie, beren eririk gabe ez dakitenen herriar guztiek: eskubidea eta eskabidea da euskarra euskal herritar guztientzat; c) Euskaraz bizitzeko aukera eman behar zaio euskaldunari eta euskalduntzen denari: euskarazko kultura, gizarite euskalduna, euskaraz lana egiteko modua, zerbitzuak euskaraz...d) Eskaintza, aukera, eskubidea, etab. berretsri ondoren, euskarra ezarri egin behar dela uste dut, edozein hizkuntza nazional eta ofizial jakitea ezartzen den bezala, herriararren eskubide guztiak eduki ahal



izateko. Bereziki ezarri egin behar da euskarra: irakaskuntza, administrazio eta zerbitzu publikoetan, komunikabide sozialetan. Eta neurriak hartu behar dira jendaurreko zerbitzuetan, enpresetan, euskarra aintzakotzat har dezaten eta dagokien eran erabil dezaten; *bul-tzatu* egin behar da euskarra gizarite-bizitan eta kultur gintzan, horretarako beharrezkoak diren eragingarri guztiek.

Euskararen hilzori honetan, printzipio hutsen izeneko buruberoeria zalapartatsua kaltegarria baldin bada, ez da gutxiago «liberalismoaren» aitzakio lerdokeria geldoa. Burua hozta, baina bihotza beroa, esan ohi denez. Eta eskuak ekinean, erantsiko nuke. Egoera nolakoa, neurriak halakoak, behar ditu euskarak.

Baina horrek galderagileak aipatu duen beste puntu bat gogoratzen dit: erradikalismo-rena. Nik alde batera utziko nuke «erradikalismo» hitza, duen kutsu gaitzeritzioko eta iraingarriagatik; erradikalitasa erabiliko nuke, edo *errotiar-tasuna*: erroeta, zuztarretara doanaren joera, alegia.

Errotiara izan beharra da-

goela uste dut, euskararen diagnosis egitean eta sendabideak jipintzean. Euskararen egoeraren analisiak ez du azalean gelditu behar, ezta horren gaitzaren sendabiderako erremedioak enplasto hutsetan edo adabakitan gelditu behar. Euskarak sustrairo gaitza baldin badu, sustraira jo behar da: bestelako diagnosis eta erremedioak gaitz hori ezkatuzeko besterik ez dute balioko, edota hori luzatuzko bakarrik. Alde horretatik nik neuk ere erradikala izan nahi dut.

Baina *errotiar-tasun hori* beste honetatik dator: hots, euskarra Euskal Herriaren eta euskaltasunaren erro eta sustraitzat hartetik. Hau da, euskararik gabe Euskal Herriaren asmoa eta proiektua erorik gabe geldituko litzatekeela uste izatea. Euskarari balio hori ematen diodanean, erradikala, erroti-rra naiz.

Hala ere, ni neu ez naiz erradikala, arbolaren —euskararen— hostoetan, azalean edo adarretan agertzen diren gaitzaren sintomak eta horien sendabideak, haren sustrairo gaitzaren gaitzagoztatze eusteko izango diren neurrian; hau da, haiek larrialdiho sendabide gisa erabiltzen diren neurrian. Ni neu prest nengoke aurrenik hostoetako, azaleko eta adarretako gaitzak sendatzen ibiltzeko, bategi ere berehalakoan zuztarretara joaz gero, arbola bera erortzeko edo zuztarretik erazuteko arriskua baldin balego. Baina kontutan eduki behar da, lehenbat lehen sustraitik osatu behar dela euskarra. Erradikalitasa eta errotiar-tasuna ez da inola ere baztertu behar.

Euskararen politikan hostoartean gaitzeko arriskua ez da makala.

Paulo AGIRREBALTZATEGI